

Euskadiko biztanleen % 17,1 15 eta 29 urte bitarteko gazteak dira

Araba da biztanle gutxien duen lurraldea (Euskadiko biztanleria osoaren % 14,3), baina bertan gazteen indizea altuena da: 15 eta 29 urte bitarteko gazteak arabar guztien % 18,0 dira.

2007ko Biztanleen Udal Erroldak plazaratutako datuen arabera, EAEn 2.141.860 biztanle daude guztira. Horien % 48,9 gizonak dira, eta % 51,1 emakumeak. 2006ko datuekin alderatuta, biztanleriak apur bat gora egin duela antzeman daiteke (2006an 2.133.684 biztanle baitzeuden).

2007ko datuek adierazten dutenez, EAEko biztanleak honela daude banatuta: Bizkaian biztanleen % 53,3 daude; Gipuzkoan % 32,4; eta Araban % 14,3.

Biztanleen banaketan dagoen heterogeneotasun hori lurralde historikoetako bakoitzean ere ikus daiteke. Araban, biztanleen % 75,1 Vitoria-Gasteizen bilduta daude; % 8,9 10.000 eta 2.001 biztanle arteko udalerrietan; % 9,9 2.000 biztanletik beherako udalerrietan; eta, azkenik, 50.000 eta 10.001 biztanle artekoetan, % 6. Bizkaian egoera guztiz bestelakoa da: biztanleen % 34,8 50.000 eta 10.001 biztanle bitarteko udalerrietan bizi dira; % 30,9 100.000 biztanletik gorakoetan; % 14,5 10.000 eta 2.001 biztanle artekoetan; eta, azkenik, 2.000 biztanletik beherako udalerrietan, % 4,1. Gipuzkoako biztanleen % 42,6 50.000 eta 10.001 biztanle arteko udalerrietan erroldatuta daude; % 26,4 100.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan; % 8,7 100.000 eta 50.001 biztanle bitartekoetan; eta % 4,7 2.000 biztanlera artekoetan.

15 eta 29 urte bitarteko gazteak

Euskadiko biztanleen % 17,1 15 eta 29 urte bitarteko gazteak dira, zehazki 365.419 pertsona. Datu hauek 2006koekin konparatzen baditugu, biztanle gazteen kopuruak behera egin duela antzematen da. Hala eta guztiz ere, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen taldeak pisu bera du biztanleria osoaren baitan.

| 15 eta 29 urte bitarteko biztanleak. Zenbaki absolutuak eta portzentajeak. EAE. 2007-2006 | | | | |
|---|---------|------|---------|------|
| | 2007 | | 2006 | |
| 15-29 urte | 365.419 | 17,1 | 380.788 | 17,8 |
| Iturria: Biztanleen Udal Errolda 2007-01-01ean eta 2006-01-01ean. INE eta bertan egina | | | | |

Biztanle gazteei buruzko datuak generoaren arabera aztertu dira, eta hauek dira ondorioak: 2007an gazteen % 51,3 mutilak dira (187.284 guztira), eta % 48,7 neskek (178.135 guztira).

Aztertu diren 2007ko datuak adin-taldearen arabera sailkatu ondoren, konproba daiteke % 24,3 15 eta 29 urte bitartekoak direla; % 32,0 20 eta 24 urte bitartekoak direla; eta % 44,0 25 eta 29 urte bitartekoak.

EAEEn 65 urteko 111 pertsona daude 20 urtera arteko 100 pertsonako. Horrenbestez, 2006ko egoerak bere horretan jarraitzen du, biztanleria gazteak ez baitu adineko biztanleriak adinako pisua.

Biztanle gazteek **hiru lurralde historikoetan** duten proportzioari dagokionez, Araban 15 eta 29 urte bitarteko gazteak biztanleria osoaren % 18,0 dira; Bizkaian % 17,1; eta Gipuzkoan % 16,6. Datu hauek 2006koekin konparatuta, Gipuzkoan jasan du gazteen indizeak beherakadarik handiena.

| EAEko gazteen indizea. Portzentajeak. 2007-2006 | | |
|---|-------------|------|
| | 2007 | 2006 |
| EAE | 17,1 | 17,8 |
| Araba | 18,0 | 18,9 |
| Bizkaia | 17,1 | 17,8 |
| Gipuzkoa | 16,6 | 17,4 |

Iturria: Biztanleen Udal Errolda 2007-01-01ean eta 2006-01-01ean. INE eta bertan egina

Lurralde bakoitzaren ordekapen-tasari buruzko datuek aditzera ematen dutenez, Bizkaia du belaunaldiak ordezkatzearen bermerik apalena. Izan ere, 65 urtetik gorako 118 pertsona daude 20 urtetik beherako 100 pertsonako. Araban eta Gipuzkoan, ordea, ordezkapen-tasa EAEko tasa osoaren azpitik dago (65 urteko 98 pertsona 20 urtera arteko 100 pertsonako eta 65 urteko 105 pertsona 20 urtera arteko 100 pertsonako, hurrenez hurren).

Erlazionaturiko taulak:

1. taula (pdf, Kb)
2. taula (pdf, Kb)
3. taula (pdf, Kb)
4. taula (pdf, Kb)

Erlazionaturiko estekak:

Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak